

Gorka Aulestiaren hilberri-txostena (1932-2021)

OTEGI, Karlos
Euskaltzain urgazlea

Gorka AULESTIA TXAKARTEGIri, gure Gorkari, itsasoa gozabide paregabea zitzaion. Ondarroako Nasa kalean, Zubi Zaharraren ondoan jaioa (1932-12-11), ondarroar peto-petoa izanik, itsasoa izan zuen bizialdi osoan berezko elementu naturala, likido amniotikoa. Itsasoaren altzoan lehorrean baino erosoago moldatzen zela esaten zuen maiz. Hondartzak, bagak, bustialdiak, Donostiako badia igerian zeharkatzea, goizeko bainu arnasgarriak zituen gogoko. Bazterrik maiteenen artean, Ondarroa, Bakio, Donostia, Zarautz... Igerian egiteko beti prest; estropaden jarraitzaile sutsua. Gorkaren bizitza iraupen luzeko igerialdi bat, ziaboga ugariko arraunketa saio lehiatsu bat izan da.

Gorkak apaiz ikasketak, hau da, humanitateak, filosofia eta teologia, Saturrango (1946-1950), Gasteizko (1950-1956) eta Derioko (1956-1958) apaizgaitegietan egin zituen. Abade lanak Bakion, Otxarkoagan, Gernikan eta, baita ere, Paris ekialdeko Château-Thierry herrian bete zituen. Azken egonaldi honetan, “Alliance Française”n goi mailako diploma lortu zuen frantses hizkuntzan.

Garai hauetan, gizarte egoera soziopolitikoa eta elizako hierarkiarekiko harremanak gatazkatsuak ziren. Gorkak erreibindikazio ekintza zenbaitetan parte hartzeaz gainera, gai hauetan bere burua hobeto jantzi nahian, Gizarte Zientzietan graduatu zen, Deustuko Unibertsitatean. Azkenean, gogo berotasunak eta baztertuenei laguntzeko barne eskakizunak eraginik, Afrikara abiatu zen, euskal elizbarrutiko misiolari gisa jardutera. Ziaboga nabarmena bere bizi arraunketan.

1967tik 1970era Gorka misiolaritzan aritu zen Kongo Belgikarra izandako Zairen, hegoaldeko Katanga eskualde istilutsuan, Bunkeya herrian. Misiolari gehien eginkizuna laguntza humanitarioa ematea zen, herritarren behar oinarrizkoetan eskua luzatzea, maiz etsai giroan, gerra ireki edo isilekoz inguratuta. Gorkak, behin baino gehiagotan, ekarri ohi zuen gogora heriotza pare bat aldiz sentitu zuela gertu bizitzan. Horietako bat Katangan.

1968ko ekainean, Mobuturen militarrek bera eta beste bi misiolari salatu zituzten, faltsuki. Akusazioa: soldaduei sendagaiak eta gasolina ukatu, soldaduetako bat jipoitu, eta Zaireren independentzia urteurrenean elizako ezkilak jo ez izana. Atxilotuta, kamioiez, 200 kilometro urrun zegoen Lubudiko kartzelara eraman zituzten. Bidaia deitoragarria, mehatxagarria. Soldaduak edaten, metraileta tiro sortak botatzen. Gorka eta lagunak beldurrak airean. Azkenik, Kinshasa hiriburuko artzapezpikuaren bitartekaritzaz, onik atera ziren. Baina Gorkak bizia galtzeko zorian sumatu zuen bere burua. Kezkaz oroitu ohi zuen larriune hura.

Bizialdiaren arraunketan Gorkak beste ziaboga erabakigarri bat 1975ean hartu zuen, 43 urterekin. Sekularizazioa eskatu, traineruaren brankaren norabidea aldatu, eta Ameriketako Estatu Batuetarako bidea hartu zuen. Renora, Nevadako Unibertsitatera iritsi eta bertan 80ko hamarkadaren bukaera arte aritu zen, 14 bat urtez. Unibertsitatean, Basque Studies Program-ean, Euskara Irakurle (*language assistant*) gisa jardun zuen (1976-1979), eta bi lizentzia (*master's degree*) lortu: frantses literaturan bata (1978) eta espainiar literaturan bestea (1979). 1979-1980 ikasturtean, Washington State University-n, Pullmanen, irakatsi zuen, eta ondoren, 1980tik 1988ra bitartean, ostera Renon, irakasle laguntzaile moduan lan egin zuen aipaturiko Basque Studies Program-ean.

Estatu Batuetako igerialdian zehar, Gorkak, irakasle eta aztertzaile lanetan, hiru esparru jorratu zituen.

Aurrenik, ahozkotasuna, ahozko literatura, eta, batik bat, bat-bateko bertso sortzea, bertsolaritza. Jarduera honen emaitzarik aipagarriena, doktore tesia: *El bertsolarismo: literatura oral improvisada en el País Vasco*. Tesi honekin, 1987an, Gorkak doktoregoa (*PhD*) lortu zuen Basque Studies (Language and Literature) ikasketa-sailean. Epaimahaikideen artean: William A. Douglass eta Juan Mari Lekuona, ekitaldi akademikorako Renora propio joana. Tesia gaztelaniaz argitaratu zen 1990ean, *Bertsolarismo* izenburuz (Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1990), eta, 1995ean, ingelesera itzuli, *Improvisational Poetry from Basque Country* tituluaz (Reno: University of Nevada Press, 1995). Lan honetan aztergai dira: ahozko literatura, bertsolaritzaren osagaiak eta jarduerak, bertsolaritza motak, bertsolaritzaren historiako une giltzarri eta alde sozial zenbait, eta lau bertsolari adierazgarri (Etxahun, Otaño, Xalbador eta Amuriza).

Bigarrenik, lexikografia. 1979an, Pullmanen irakasle zegoelarik, egun hotzetako eta gau ilunetako neguan, “klastrofobiko” gisa kalifikatzen zuen ingurunean murgildua, Gorkak arnasgarria aurkitu zuen hiztegi bat osatzeko lan nekagarrian. Or-

duan hasitako lanak hamar urte geroago, 1989an, ikusi zuen argia: *Basque-English Dictionary*. Hurrengo urtean, 1990ean, honen bikotekidea: *English-Basque Dictionary*, Linda Whiteren lankidetzaz (Reno: University of Nevada Press: 1989, 1990). Ez da hiztegi borobil hobeezina, baina bai aitzindaria, hutsune nabarmen bat behin-behinean betetzera bideratua.

Eta hirugarrenik, euskal literaturako autoreen azalpen biografiko-literarioak. Pullmanen, hiztegiari hasiera ematearekin batera, Gorkak euskal literaturan puntakoak diren idazle batzuei buruzko artikuluak, monografia laburrak idazteari ekin zion. Lehenengo: “Bernat Etxepare”. Hurrengo urteetan, bizitzaren azken unera arte, azterketa eta idazketa mota horrekin jarraitu zuen, etenik gabe. Hori izan zuen jardun nagusia. Betiere, irakaskuntzarako materialak prestatzeko helburuz. Taxu honetako lehenengo artikuluak eta idazlanen erreseina zenbait, Oklahomako Unibertsitateko (Norman) *World Literature Today* aldizkarian argitaratu zituen.

1987ko urrian, Ameriketako igerialdia amaitu baino urte bi lehenago, Gorka, Gasteizen egin zen II. Euskal Mundu Biltzarrera etorri zen. Literaturari buruzko sailean txosten bat azaldu zuen: “Two pioneer poets: Lauaxeta and Jon Mirande”. Urte dezente zeramatzan Euskal Herritik kanpo. Biltzarrean parte hartzen ari ginenongana gerturatzen saiatu zen. Bertatik agurtu eta ezagutu nahi gintuen; hemen, ikasketa literarioen arloan, landu berriak ziren gaiak eta arazoak gertutik jakiteko, bere burua egunean jartzeko asmoz. Norbaitek elkarri aurkeztu gintuen. Orduan ezagutu nuen Gorka. Aurrez aurreko gure arteko lehen harremana izan zen. Lehen inpresioan, gizaseme estatubatuar tipiko baten itxura hartu nion. Gorpuzkeraz handia, galanta, zabala, sasoikoa. Izaeraz, tratu atsegin eta hurbilekoa. Irekia eta baikorra, irribarre zintzokoa. Adoretsua, bere buruaz ziur, pozik dagoen horietakoa. Lehen inpresio hori, denboraren eta harremanen poderioz, berretsi egingo zen.

1989ko martxoan, Ameriketara hamalau urte igaro ondoren, Gorkak beste zia-boga bat hartu zuen: Mertxe emaztearekin eta Iker semetxoarekin, Euskal Herrira itzuli zen. Behin betiko.

1987tik aurrera, 2000. urtean erretiroa hartu arte, Deustuko Unibertsitatean, Donostiako EUTGn, euskal literatura irakatsi zuen. Juan Mari Lekuona izan zuen lankide eta adiskide. Urteotan, Gorkak euskal literaturako autoreei buruzko monografiak osatzen jarraitu zuen, hautatuz, hasiera batean bederen, XIX. mendearen azken hamarkadetatik Espainiako gerra zibilaren ondoko urteetara luzatzen den

aldian kokatutako idazleak. Horrela, 1992an, *Erbesteko euskal literaturaren antologia* argitaratu zuen (Donostia: J. A. Ascunce editorea, 1992). Hor, erbestera jo behar izan zuten egile batzuen testu hautatuak biltzen dira. Egile horien artean: Orixe, Monzon, Jakakortajarena, Ibiñagabeitia, Ugalde, S. Mitxelena, Leizaola eta abar.

Antologia horrez gain, azalpen biografiko-literarioak osatzen jarraitu zuen. Jandantik argitaratutako batzuk eta argitaratu gabe zituen beste batzuk bilduz, 2000. urtean, ingelesez, *The Basque Poetic Tradition* kaleratu zuen (Reno: University of Nevada Press, 2000). Liburuan euskal poesiaren inguruko hamalau monografia jasotzen dira. Poeten artean: Etxepare, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Mirande, Aresti, J.M. Lekuona eta abar.

1996an, espezialista zenbaitek euskal literaturaren idazle klasiko batzuei buruzko azterketa monografikoen bilduma bat koordinatu eta editatu zuen: *Los escritores. Historia de la literatura clásica euskérica* (Gasteiz: Fundación “Sancho el Sabio”, 1996). Landutako autoreak, besteak beste: Axular, Larramendi, J.A. Mogel, Oiherart, Elizanburu...

EUTGko urte hauetan, Euskaltzaindiarekiko harremana sendotu zen. Juan Mari Lekuonak eta Jean Haritschelharrek literaturaren azterketaz, euskal literaturaren azterketaz nagusiki, arduratuko zen LIB Batzordea sustatu zuten (1989/1991). Gorka hasieratik izan zen Batzordean eta, beste zenbait jardueraz gain, *Literatura Terminoen Hiztegia*-ren taxutze lanean parte hartu zuen. Hiztegia 2008an argitaratu zen (Bilbo: Euskaltzaindia, 2008). Batzorde horretan egin genuen topo berririo, beste lankide batzuekin batera, Gorkak eta biok. Elkarren arteko ezagutza, sostengua eta kidetasuna, talde horren itzalpean gorpuztu zen, azken bi hamarkadetan zehar.

Euskaltzaindiak, 1996an, euskaltzain urgazle izendatu zuen gure Gorka.

Unibertsitateko irakaskuntzan erretiroa hartzean, Gorkak derrigorrezko ziaboga berri bat eman behar izan zuen. Norabide aldaketak eragina izan zuen bere estatus akademiko-administratiboan, baina ez eguneroko bizimodu eta lanean. Bizi arraunketaren azken txanpa luze eta emankorrean, ordura arteko jarduerari eutsi zion: irakasle izaten jarraitu zuen eta baita literatura aztertzen eta literaturaz idazten. Familia bizitzaz eta gizarte harremanez landa, Gorka, azken urteotan, hiru zereginetan aritu izan da gogoz eta adoretz.

1995etik 2011ra bitartean, euskal kulturari eta ikerketari eskainitako *Sancho el Sabio* aldizkariaren zuzendarikide izan da. Zuzendaritzan parte hartzeaz gain, artikulatu sorta argitaratu du Gasteizko agerkari horretan.

Euskaltzaindiari ere eskaini izan dio bere ahalegina. *Literatura Terminoen Hiztegia* argitaratu ondoren, parte hartu izan du zintzoki, prestatzen ari den *Euskal Literaturaren Antologia*-n. Gorkaren ekarpena benetan onuragarria izan da: iritziak, kritikak, testuen hautapenerako eta lanketarako proposamenak, eta, batez ere, bere presentzia hutsez, bilkuran egote hutsez, transmititu izan duen oreka eta sosegua; desadostasun edo eztabaida sutsuetan, beroaldietan, hedatu izan duen baretasuna. Haren falta nabaritzen dugu. Baita Jean Haritschelharrena ere.

Euskaltzaindiak, 2010ean, euskaltzain ohorezko izendatu zuen Gorka.

Baina, azken txanpa honetan, Gorkaren gogoia gehien asebate eta akuilatu duen jarduera, Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen, “Esperientzia Gelak” programaren bidez, eskaintzen dituen ikasketetan bete duen irakasle lana izan da. 2002. urtean hasita, buru-belarri jardun izan du irakaskuntzako arlo honetan. Zinez eskertzen zuen eman zitzaion aukera. Aitortzen zuenez, ez zuen inoiz horrenbeste gozatu irakaskuntzan. Poz-pozik, zorutzen, zegoen, irakasleekin lortutako harreman giroarekin. Ezbairik gabe, hau izan da literaturaren azterketa lanean jarraitzeko kemena itsatsi dion eginkizuna. Ikasleentzat materialak prestatzeko beharrak, literaturari buruzko monografia sailarekin jarraitzeko zitzada eman dio.

Jarduera honen emaitza dira Gorkak argitaratutako azken bi liburuak. 2008an *Estigmatizados por la guerra* plazaratu zuen (Bilbo: Euskaltzaindia, 2008). Liburuan, XIX. eta XX. mendeetako gatazka politikoei eta gerrateek astindutako euskal kulturari aipagarriak diren 43 lagunen azalpen biografiko-literarioak jasotzen dira. Aginte zapaltzaileak isiltasunera, euskal kulturaren aldeko ekintzari uko egitera behartu zituen. Zokoratuak, makurraraziak, jazarpena, espetxea, erbestea, batzuek heriotza ere, jasan behar izan zuten. Behar bezala kontrastatutako datu, xehetasun, iruzkin eta lekukotasun franko biltzen dituen lana da; memoria historikoari eta iragan kulturalari egindako ekarpena. Landutako idazleen artean: Aitzol, Lauaxeta, Orixe, Zaitegi, Ugalde, S. Mitxelena, Barandiaran, Txillardeggi, Lartzabal, Ibiñagabeitia, L. Mitxelena, S. Onaindia eta abar. Eta 2011n, *Escritores euskéricos contemporáneos* (Bilbo: Euskaltzaindia, 2011) argitaratu zuen. Oraingoan, XX. mendeko beste 23 euskal idazleren azalpen biografiko-literarioak. Azkuerekin hasi eta B. Atxaga eta Saizarbitoriarekin amaitzen da, bidean, D. Agirre, Arrese Beitia, Kiriñño, J. Etxepare, Lizardi, Orixe, Mirande, Aresti, Zarate, Lete, Gandiaga eta abar landuz.

Azken bost edo hamar urteotan, Gorkak, ikuspuntua edo interesgunea zabalduz, literatura unibertsala hartu du aztergaitzat. *Historia y Literatura* izenburuaz, garai historiko eta garai bakoitzeko idazle bikain zenbait uztartzen dituzten artikulua opa-roak prestatzen aritu da, adorez, baikortasunez, argitasunean hutsik egin gabe. “Ad usum privatum”, “Esperientzia Gelak” programako ikasleentzat moldaturiko gaiak dira. Maila bikaineko idazle askoren irakurle saiaturia izanik, Gorkak, 35 kapitulu-tan, garai historiko edo literatura mugimendu bakoitzeko ezaugarri giltzarriak trebeki zirriboratu eta, bereziki, orduko idazle nagusien monografia biografiko-literarioak osatu ditu. Lan honetan, VIII. mendeko Islamaren aurrera egite hartatik abiatuta, *Chanson de Roland* poema epikoa azaltzen da, eta Dante, Montaigne, Shakespeare, Cervantes, Hugo, Dostoievski, Poe edo Baudelaire, besteak beste, aztertu ondoren, XX. mendera iritsi eta 27ko belaunaldia, existentzialismoa, Sartre, Camus, Simone de Beauvoir, Isak Dinesen, Marguerite Duras, eta beste, jorratzen dira.

Lan handinahia, arnas zabalekoa, saiatzeko luzekoa, erabat zehaztu gabe, azken ukituen faltan, Gorkak utzi duen *Historia y Literatura* hau. Izan ere, Gorka ez da izan igerilekuko igerilaria, joan-etorri labur eta azkarrekoa, itsas zabaleko igerilaria baino. Iraupen luzeko arraunketa izan du gogoko, ez erlojuaren aurkako lasterketa urduria. Ez zuen abiadura bizian aurreratzen, erritmo baxu baina etengabea bai-zik. Gorkaren besakadak, arraunkadak, astitsuak ziren, baina irmoak, atergabeak. Jarraitasunez eta kemenez aritu da euskal literatura eta literatura unibertsala ikasten, aztertzen eta azaltzen ibilbide luzeko proiektuetan.

Gorkaren azterketa lanak, gehienbat, ez dira nabarmendu originaltasunaz, ikuspuntu berezi eta ustekabez, ekarpen berritzailez, berealdiko aurkikuntzaz. Ez dira ikerkuntza zorrotzak, berebiziko sorkuntzak. Inoiz edo behin, bai. Badira, zenbaitetan, datu, xehetasun, gertakari, lekukotasun ezezagun edo apenas ezagunak. Aski da *Estigmatizados por la guerra* arretaz irakurtzea. Baina, oro har, Gorkaren lanak, bildumak dira, sintesiak, eskuarearekin han-hemenka jasotako datuen, gertakari-irritzen, ezaugarri giltzarrien, emaitza ezagunen birmoldaketa. Eta hori, egiaz-tatzez, bermez, egiten du; informazioak, materialak, irakurketak, kontrastatuz eta iaioki antolatuz. Jarduera honen bidez, goi mailako dibulgazioa bilatzen du, gaiaz nolabaiteko ezagutza duen baina ezagutza hori zabaldu eta sakondu nahi duen entzuleari edo irakurleari eduki kulturalak egokitzea eta transmititzea. Gorkak argi eta garbi adierazten du hartzen duen aukera. Honela dio *The Basque Poetic Tradition* liburuko “Preface”n:

I felt there were no problems with regard to the selection and order of the subject matter; since I was not attempting to write a sequential history of Basque literature, I could choose a poetic subject here, a prose subject there, and write about the authors whom I judged to be outstanding in Basque literature. I did have problems, however, with the form in which I was to deal with my topics. Should I delve deeply into each subject and run the risk of my readers getting lost in a foreign literary forest, or should I expound on each subject as simply and clearly as possible without losing sight of the fact that I was writing for an intelligent and fairly well-educated audience? I opted for the second choice, preferring to follow the wise counsel of the great bertsolari Ignacio Eizmendi, alias "Basarri", who stated, "I would prefer not to compose verses at all than create them in such a manner that they be incomprehensible to the common people".

Jarrera eta hautapen honen ildoari atxikiz, Gorkak gehien landu duen azterketa moldea, trebekien konfiguratu duen idatzizko egitura, erretratua edo azalpen biografiko-literarioa izan da. Ez du historia jarraitu, sekuentzial bat osatu. Apailatutako bildumetan suma daiteke monografiaren arteko nolabaiteko lotura hariak: poeta izatea, erbesteratua izatea, gerra nozitu izatea... Baina minihistoria horiek gizabanakoei dagozkienak dira, indibidualak. Erretratu bakoitza bere horretan hasi, garatu eta itxi egiten da. Kultura arloko ekintzaile bat, literatura esparruko sortzaile bat hautatu eta haren bizi ibilbidea, gorabeherak, nortasuna eta jarrerak, pentsaera nagusia, ingurunea eta idatzizko emaitzak jorratzen ditu. Gertutik, enpatiaz, ia-ia subjektuarekiko afektuz eta kidesunez ere.

Erretratu hauetan kontaketa da nagusi. Izan ere, Gorka, batez ere, kontalaria izan da, ahozko eta idatzizko kontalaria. Azken unera arte iraun dion memoria harrigarritz hornitua, gertalekuak, elkarrizketak eta pertsonen izaerak, baita aspaldiko ere, gogoan berreskuratu eta xehetasunez azaldu izan dizkigu. Oroitzeko gaitasunarekin batera, jardun luzerako trebetasuna: kontaktaren hariari heldu, handik eta hemendik tiratu, garatu, hariz aldatu, hasierakoari berriro ekin... hari sare joria ehunduz. Oparoki hitz egin izan du bere bizitzaz: pasadizoak eta peripeziak, arriskugarriak ere tarteko; eliza eta gizarte agintariekin izandako gorabeherak; kultura munduko harremanak; gizarte konpromisoak; irakurketak, eztabaidak, bidaiak, kirol zaletasunak... Ezinbesteko errepika barkagarriak eta guzti, Gorkaren solasa gure arteko elkartzeko askoren suspergarria izan da maiz. Zergatik

ez zuen oroitzapenak idatziz biltzen iradoki izan zaionean, ez dio proposamenari jarraitu nahi izan. Tamalez, bizi artxibo hori, harekin joan da.

Ahozko trebezia hori idatzizko lanetara, monografia biografiko-literarioetara ere eramán du. Minihistoria horiek, funtsean, kontakizunak dira. Autorea hautatuta, honen bizialdian murgiltzen da, bizialdi hori gertaera adierazgarritz ziprztinduz: gorabeherak, erabakiak, desengainuak, lorpenak eta porrotak, harremanak, oztopoak eta atxikimenduak, barne bilakaerak..., molde narratiboa oparoki baliatuz.

Gorka pertsona irekia izan da: burura zetorkiona, bihotzak eragiten ziona, kanporatzen zuena. Jendekina, edozein harreman motari aise egokitzen zekiena. Agurtzera gerturatzen zen, galdetuz, interesa erakutsiz, hizketakidearen maila be-rean jardunez. Tankera guztietako jendearekin, errazki. Berdin goi mailako kargu-dunekin (ordezkari politikoa, eliza agintaria...) edo pertsona arrunta (zerbitzaria, kaletar xumea...) izan. Giza harremanetarako aparteko erraztasuna zuen.

Pertsona adeitsua izan da, gizabidetsua. Arretatsua besteekiko. Puntuala, inor izatekotan, Gorka. Uste bazenu puntual baino puntualago iristen ari zinela hitzordura, ailegatzetako han zegoen jada Gorka zure zain. Hitza betetzen beste inor ez bezalako: agindu bat egin eta bai arduraz bete ere. Besteen arrakastaz poza hartze-ko, besteen dohainak, merituak eta jakinduria aitortzeko, oztoporik ez. Anbizio-rik edo inbidiarik gabeko gizona. Konforme bere izaera, lana eta mailarekin.

Lagunei leiala, baita lagun hildakoei ere. “Goazen, Juan Mariren hilobiari bisita bat egin nahi nioke”. Eta Amaiurtik bueltan, Oiartzungo kanposantura, Lekuona bihotzean. Leiala ere herriarekin: Euskal Herria helburu; justizia aldarri; iruzurra, abusua eta bidegabekeria gaitzets. Askorentzat Gorka, maitagarria izan da.

Umore edo aldarte onekoa izaki, nekez galtzen zuen sosegua, baretasuna. Bi-zipoza zerion poro guztietatik. Bizitzaz gozatu du: familiaz, lagunetz, lankideez, proiektuez, idazlanez, bidaiez... Baikorra izatez, kontent, gogobeterik bizi izan da. Baita azken hilabeteetan ere: “Zoriontsu naiz” errepikatu izan du maiz. Ez zirudien heriotzaren hurbiltasunak harengan eraginik, larriunerik sortzen zuenik. Azken unera arte proiektuak buruan. Etsipena, tristura, melankolia, arrotz izan zaizkio. Behin ere ez burumakur. “Aurrera! Beti aurrera!” izan du goiburua. Eta bilkuren ondoren, agur egitean, “Hurrengora arte! Eutsi goiari!”.

“Bidegileak” bildumarako Gotzon anaiaren erretratu maitekorra osatu zuen. Erretratu horren bukaeran, hein batean bederen, Gorkarentzat berarentzat, bere buruarentzat alegia, baliagarri diren hitzok jarri zituen:

Bere bizitzako ibilbidean poztasun ugari eta oztopo handi batzuk ere izan zituen. Baina une latz eta beheraldietan kristau sinesmenean eta musikarako zuen zaletasunean oinarriturik, ekaitzei brankaz aurre egiten ikasi zuen gaztarotik, arrantzale baten seme on bati dagokion bezala. Lan profesionalak ematen duen bizipoza izan zuen bere zutaberik sendoenetariko bat eta, horren ondorioz, sarritan umoretsu, itxaropentsu eta irribarretsu agertzen zen. Gaztaroan euskal kulturaren alde egin zuen apustuari tinko eutsi zion beti, hil arte.

Gorkak joan den urteko maiatzaren 10ean eman zuen azken zia boga. Gure eta beste askoren gozoan eta bihotzean txoko bat izango du luzaroan.